



043 – J eredia

1. orrialdea

Ekitaldia

Autolikidaziori dagokion urtearen zifra guztiak idatziko dira.

Aldia

HIRUHIL1 = 1. hiruhilekoa	HIRUHIL2 = 2. hiruhilekoa	HIRUHIL3 = 3. hiruhilekoa	HIRUHIL4 = 4. hiruhilekoa
---------------------------	---------------------------	---------------------------	---------------------------

Aitorpen osagarria

Lauki honetan X jarriko da baldin eta autolikidazioaren helburua bada, aurretik aurkeztu den aldi bereko beste autolikidazio batean sartu beharrekoak izan arren, autolikidazio horretan sartu gabe utzi ziren datuak sartzea.

Aitortzailea

Pertsona edo entitate aitortzailearen identifikazio-datuak adierazi behar dira. Operadore aitortzailea Ceutan edo Melillan bizi bada, X jarriko da *Ceuta eta Melilla* dioen laukian.

Likidazioa

Tasa (%). Tasa hauetako bat jarri behar da, joko-modalitatearen arabera:

Zerga-tasak		Araubide orokorra	Egoitza benetan Ceutan eta Melillan duten operadoreak		
Sarrera garbiak	Elkarrekiko kirol apustuak	% 20	% 10		
	Kiroleko kontrapartida-apustuak				
	Elkarrekiko zaldi-apustuak				
	Hipikako kontrapartida-apustuak				
Sarrera garbiak	Elkarrekiko beste apustu batzuk	% 20	% 10		
	Bestelako kontrapartida-apustuak				
	Zozketak			% 20	% 10
	Onura publikoko zozketak edo ongintzakoak			% 5	% 2,5
Sarrera garbiak	Lehiaketak	% 20	% 10		
	Bestelako jokoak				
Komisioak eta bestelako sarrerak	Kiroleko apustu gurutzatuak	% 20	% 10		
	Bestelako apustu gurutzatuak				
	Bestelako jokoak			% 20	% 10

Kuota. Biderketa honen emaitza jaso behar da: *Sarrera garbiak* laukia / *Komisioak eta bestelako sarrerak* laukia bider *Tasa* laukia.

BLH erag-bol. %. Joko-modalitate bakoitzean Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako eragiketen bolumenaren ehunekoa jarri behar da. Zozketen, onura publikoko zozketen edo ongintzako zozketen kasuan edo lehiaketen kasuan, ehuneko hori % 100 izango da pertsona edo entitate zergadunak zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badu.

BLH Kuota. Biderketa honen emaitza jaso behar da: kuota bider Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako eragiketen bolumenaren ehunekoa, joko-modalitate bakoitzari dagokionez.

Kuotak, guztira. Joko-modalitate bakoitzean Bizkaiko Lurralde Historikoan dagozkion kuota guztien batuketaren emaitza jarri behar da.

$$200 = 16 + 23 + 30 + 37 + 44 + 51 + 58 + 65 + 72 + 79 + 124 + 129 + 134$$

Aurretik sartutakoa. Lauki hau autolikidazio osagarri bat denean bete behar da.

Zerga-zorra. Kenketa honen emaitza jarriko da: *Kuotak, guztira* laukia ken *Aurretik sartutakoa*.

$$202 = 200 - 201$$

2. orrialdea

Lurraldea. Dagokion lurraldea harri behar da: Lurralde erkidea, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia edo Nafarroa.

Eragiketa bolumena. Joko-modalitate bakoitzari dagokionez lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumena jarri behar da.

Ehunekoa. Aldi horretan lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren ehunekoa jarri behar da. Proporzio hau kalkulatzeko kontuan hartuko da zer pisu erlatibo duten lurralde erkideko, Arabako, Gipuzkoako, Bizkaio edo Nafarroako egoiliarrek diren jokalariek jokatutako kopuruak. Proporzio honen kalkuluan, ez dira sartuko ez-egoiliarrek edo egoitza ezezaguna duten jokalariek jokatutako kopuruak. Horrela kalkulaturako ehunekoa ez-egoiliarrek eta egoitza ezezaguna duten jokalarien eragiketei ere aplikatuko zaie.

3. orrialdea

Jokalari ez-egoiliarren eragiketak. Jokalari ez-egoiliarrek jokatutako kopuruak jarri behar dira.

Egoitza identifikaturik ez duten jokalarien eragiketak. Egoitza ezezaguna duten jokalariek jokatutako kopuruak jarri behar dira.